

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### 2020ko ohiko aurrekontu orokorra 2021rako luzatzea

BO210122. Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, udal honek erabaki du 2020ko ohiko aurrekontu orokorra 2021rako luzatzea.

Aurrekontu luzapena honako honetara egokituko da:

I. Luzapenaren xede diren kredituak amaitutako ekitaldi ekonomikoaren azken egunean onetsitakozenbatekotzat hartuko dira, ekitaldian baimendu diren transferentziak, handitzeak eta gainerako aldaketak zenbatuta.

II. Ez dira inolaz ere luzagarritzat hartuko 2020. ekitaldian amaitu behar diren zerbitzuetara edo programa multzora zuzendutako kredituak, ez eta ekitaldi horretan bakarrik jasoko diren kreditu edo bestelako diru-sarrera bereziekin finantzatu direnak ere.

III. Konpromiso kredituak automatikoki sartuko dira luzatutako aurrekontuan.

IV. Luzapena bukatutakoan, behin betiko aurrekontuak urtarrilaren 1etik onetsizat joko dira, eta horko kredituak hasierako kreditutzat hartuko dira.

Oion, 2021eko urtarrilaren 23a

*Alkatea*

**EDUARDO TERROBA CABEZÓN**